

Gaurkoan

Txillardegia (*)

Otxaportillo: 1936-1984

Puntaren Puntan

todavía hay socialistas

Todavía la sombra sucia y alargada de los Damborenea, Benegas, Guerra o Felipe González no ha conseguido sus objetivos totales. Todavía hay socialistas que no han renegado del todo de su puño reivindicativo. Pocos, pero los hay.

Por de pronto marcan sus diferencias con los energúmenos que monopolizan el poder por estos pagos. Los socialistas de Iparralde por ejemplo no están de acuerdo con las extradiciones. Las juventudes socialistas de Catalunya acaban de salir a la calle en la Diada con la pancarta de la autot determinación.

Los de Iparralde han dicho: "Si entregamos a España a los presuntos militantes de ETA, la dignidad humana no sería respetada". Palabras fuertes y duras que han hecho saltar de sus poltronas a los Benegas y Damboreneas, "especialistas en el tema vasco" y que quedan una vez más con el culo al aire a cuenta de sus viscerales rencores. Su teoría de la mano dura y la tierra calcinada contra la banda de terroristas, simples y elementales terroristas que florecen como champiñones por una prodigiosa casualidad justamente en el País Vascongado y Navarra, se da de bruces contra las declaraciones de sus colegas de Bayona que afirman el "contenido político de las reivindicaciones etarras".

Desgraciadamente, las excepciones confirman la regla y la regla socialista se extiende como una mancha gris de indignidad, una mancha viscosa que avanza sin posibilidad de retroceso.

La regla socialista es ser más papista que el papa, reconvertir mejor que la derecha y sobre todo afirmarse en el patriotismo unitario de las grandes naciones para hacer palidecer de envidia a los mismos ultras. No defendían mejor la rojigualda monárquica a los nostálgicos de la Plaza de Oriente que la defienden ahora estos indignos herederos de Pablo Iglesias y Largo Caballero.

A pesar de todo y como arrinconadas piezas de museo, todavía quedan socialistas. Yo estuve con uno hace un par de semanas. J. ABIRANETA

Lehenego igandean, Irailaren 2an, Urbasan gertatu nintzen, eta, Otxaportillo-raiko deia EGIN-en irakurria nuenez, hara jo nuen.

Ederra zen goiza; eta Amezkoa eta Barrankaren arteko Urbasa zabalera ere, ezin ederrago agertzen zen. Horrekoetan latzago izaten da heriotzarekiko kontrastea: eta Otxaportilloko bilera, zoritxarrez, hildako abertzale mordo baten oroitzapenetan antolatzen zen.

Banindoan harantz eta, bapatean, zelai zuhaitzu eta barkartian barrena doan errepide-txoaren artean, jende multxo bat ikusi nuen: ehun bat lagun, berrehun agian, eta apaiz bat bere meza-arropak jaxten ari. Hantxe zen.

Lur barnetik azalera mehatxu edo garrasika jalgit bezala, zeharka, burdinazko nafila gotor pare bat: Otxaportilloko oroikaria, 1980-an eraikia. Eta gaur burdin-nabar batez estalia den leize ikaragarriaren hegian, izkribu hunkigarri bat irakur daiteke: eradaraz alde batean, eta euskaraz bestean. Han behean, leize-zolan, giza-hezur pilo bat; dagoeneko, mende erdi baten ondoren, usteldurik eta sunsiturik. Norenak ote diren ere ez baitugu jadanik xeheki inoiz jakingo.

Eguraldi ederra, bikaina. Meza-entzuleen artean kaskazuri asko, "desagertuen" anai-arrebak edo alargunak agian. PNV-tik jaurtitako batzu ere bai, Amezketako buru. Apaiza euskaraz meza ematen ari, erdal argiztapenak tarteka erantsiz; eta, bukatzean, inor mindu nahi ez nonbait (nor minduko, ordea?). "Agur Jaunak" kantatzea proposatu du. Besterik ez. Bertan zegoen abertzale multzo batek, dena dela, handiki minutu erdi batera hasi du "Eusko Gudariak"; eta dergorrezko "Gora Euskadi Askatuta" oihu ozena ez da luzatu. Leizazulo hartara bota zituztenak (eta ez beti hil ondoren, omen!), eusko gudariak baitziren; eta gudarien himnoaz agurtu behar baitziren.

Hori bakarrik ez. Beharbada bati edo besteri atsegin ez bazaito ere, Otxaportilloko oroit-ekintza xume hori aldatu egin da; gerotzik Gurbindoren arrastoak ere han dauzako. Hau dela-ta, askoz ere mami eta balio handiagoa hartu ditu lekuak; are gure nazio-borrokaren sinboloa bera ere bihurtu arte.

Leize ikaragarri haren inguruan, hozitua den askatasunaren hazi gisa, GAL-ek hildako gudariaren errauskak haizatu ziren orain dela hilabete batzu. Otxaportilloko leizazolan dauzaten lehenego gudarien hondakinak, eta han-hemenka sakabanaturik erein diren gudari

berrien errauskak, elkartu egin dira betirako Nafarroako mendialde garai hartan. Nafartar hezur eta hauts horiek, Urbasa-Iturrieta bizkar luze zabal horretan, euskal herriaren sofrimendu eta zapalketa guztien ikur bihurtu dira.

Zeren-eta, ezinbestean, joan den Irailaren 2an, 1936ko biktimen oroitzapenezko burdinaxafen atzekaldean, apal apalik, baina esku-bide osoaz ere, bi pankarta baitzeuden: batean, inperialismoak berriki hildako gudariaren irudia ageri zen; eta, bestean, ETA-ren euzagarririk herrikoia: suga eta haiz-kora.

Sektarioek eta sasi-abertzaleek ezta mementu larri hauetan ere lehenego eta gaurko gudariak elkartzeko gogorik senditzen ez badute ere, etsaiak elkartzeten eta elkartuko gaitu denok ezintasunen eta heriotzen inguruan.

Zeren, oraindik ere handiago eta diriditu-suago baita Otxaportilloren ikur-balioa. Nor zeukaten-eta 1936ko abertzale haiek borrokakidetzat? Gure gurasoak eta aitonak izan diren gudari haiek, gogoraztea ona da, PSOE-koak zituzten "lagun". Prieto-ren kastako "aliado"ak ziren, jakina: euskaltzale "finak", Garcia Danboreneak ongi erakusten duenez. Baina, kontuz: "aliado"ak, ia-ia abertzaleak berak bezain errespetagarriak. Horixe bai! Euskal arazoaren soluzioa, PSOE-ren bidez etorriko omen zen. Urte asko eta askotan barrena, urtero-urtero, zintzo berriztatu eta baietsi den "Pacto de Bayona" be-deinkatua lekuko.

Hurrengo belaunaldian, ordea, gurean, Otxaportillo lekuko, "aliado" errespetagarri

haien biktima da gure abertzale jendea: GAL, ZEN, droga, Herrera, itoketa instituzionala, dena on gure herria mapatik ezabatzeko. Gure soluzioa PSOE-tik etorriko omen zen. Problema bakarra frankismoa omen zen. Horra hor frogak!

Eta gertaera hori ez da lehenengoa Euskal Herriaren kondairan. Kasu.

Aurreko belaunaldietan ere fenomeno bera gertatu da, eta euskaldunok oker berbera egin dugu.


Gure aiton-amonek, ongi dakigunez, hau kantatzen zuten bero-bero: "Cueste lo que cueste / se ha de conseguir / que venga el Rey de España / a la corte de Madrid". Española eskuinean jarri genuen karta horretan, gerra ere egin zuten gure gazteek "Don Karlos" "jator" haren alde. Eta ondoko urteetan "Don Karlos"en jarraitzaileek, gure gudariak garbitu zituzten eta Otxaportillora bota.

Eskuinaren eta ezkeraren frogak egin dugu. Orain zer? Zentroarekin? UCD-ren "C" horrek "centro" adierazten du...

Jakina horiek ez dira ez ezkerria, ez zentro eta ez eskuina. Eta beste txanda bat has daiteke... Edo Madrillera begira jarri beharrean, Saguntora edo Valladolidera so jarri; edo-ta Vaticanora edo Kabulera. Jakina. Hasiak ditugu geure inguruan helburu "berri" hauek proposatzen dituztenak lanean gogor.

Guk, berriz, Otxaportilloko ikaskai latza ikasi dugu. Agian beste askok ere ikasko al dute!

(*) Euskal idazlea



Hemeroteca

claridad y confusión

(ABC, 12-9-84)

Hay que lamentar como una tragedia nacional la declaración de don Carlos Garaicoechea, pero hay que celebrar lo que aclaran sus palabras, después de tantos meses de oscuridad: el señor Garaicoechea se define, según escribe ayer el enviado especial de "Le Monde", como "nacionalista radical y, como todo nacionalista vasco, partidario absoluto del derecho de autodeterminación". Esto no es ya un despropósito, no es sólo una prueba de irresponsabilidad: es una monstrosidad política añadida a nuestro más grave problema nacional. Lo decimos después de haber pedido una y cien veces, desde esta página editorial, un entendimiento entre las fuerzas liberales y conservadoras de Madrid con el Partido Nacionalista Vasco; después de haber reconocido los errores y torpezas cometidos por el centralismo en el tratamiento del problema vasco a lo largo de los últimos cien años; después de defender que existen en nuestra nación territo-

rios cuya realidad histórica -Cataluña, Vasconia y, en distinta medida, Galicia- requiere un alto nivel de autogobierno para defender su propia y autónoma personalidad.

a dios rogando y con el mazo dando

(Jordi López Camps, en «El País», 11-9-84)

Según se desprende de estas instrucciones, la última preocupación de sus autores, más allá del análisis de los contenidos de la teología de la liberación, es sancionar la salida sociopolítica que esta teología concreta para vencer la pobreza, opresión y dependencia económica de los países del Tercer Mundo. Por ello, este documento creará perplejidad y confusión en los países del Tercer Mundo. Cuanto más fuerte y combativo es el compromiso de buena parte de la Iglesia católica en aquellos países a favor de la justicia y la paz, el Vaticano, pensando en clave centro-europea y con los ojos puestos en los países del Este -y en particular en la cuestión polaca-, ofrece buenos argumentos políticos

e ideológicos para seguir perpetuándose aquellos intereses que son la última razón de la pobreza y miseria de los países del Tercer Mundo. Aquí reside la gravedad, vergonzante para muchos cristianos de este documento.

Las ansias restauracionistas de pasadas épocas de cristiandad alimentadas por Juan Pablo II se armonizan perfectamente con el delirio teocrático de Reagan. La resistente Nicaragua no deberá luchar únicamente contra los fusiles de la CIA: el Vaticano ha abierto un nuevo frente en la retaguardia. La condena de la teología de la liberación pone en serias dificultades

a los cristianos comprometidos en las luchas populares de liberación. Muchos de ellos han tomado conciencia de la injusticia y opresión de sus pueblos a través de la profundización de una experiencia religiosa que ha surgido de una fe vivida como encarnación con el dolor de los pobres y oprimidos. A partir de ello la catequesis ha ido desvelando a las comunidades cristianas, de honda religiosidad popular, que la fe cristiana no puede ser proclamada al margen de los pobres. El tomar partido por los pobres, el vivir sus esperanzas y compartir sus anhelos deviene un imperativo de fe. La pretendida

desalfabización de la teología de la liberación, las acusaciones de desviaciones doctrinales, atribuyéndole juicios y afirmaciones que nunca han sido realizados por los teólogos de la liberación, pueden confundir y dificultar este proceso de concienciación popular en los países del Tercer Mundo. Otra vez más, los grandes beneficiados serán los países del primer mundo, los mismos que hace años escucharon con preocupación las palabras de Rockefeller en un informe a la Trilateral: la teología de la liberación es uno de los movimientos más peligrosos contra los intereses económicos en América Latina.



(“Diario 16”)